

"BEGIKO" RILERANTZUNEZ

Agur :

ZABAL-en argitara dituan hiru artikuluak irakuri dizkiat : eta neuri buruzko biak, jakina, behin eta berriz arakatu. Eta, beharbada harrituko bahaiz edo ene esanak gaitzi gertatuko bazaizkik ere, puntu batzutan ados nauk hirekin.

Erantzun hau luzeegi ez egiteko eskatu zidatek ZABAL-en zuzendariak. Nahi nukeen arrapostu osoa, horretara, beste baterako beharko diat utzi ; baina funtsezko ideia batzuk ager eraziz.

Hire kritika, batera era onean eta zorrozki egina, oso interesgarria iruditu zaidak. Huk heuk ere idazten duanez geroz, ongi ezagutzen duk euskaldun idazleok jasaten dugun kritika funtsatuen beharraren gorria. Askotan ez diagu jakiten nondik nora ari garen, edo gure izkribuek zer harrera ote duten. Hirea bezalako kritikak oso ondo zetozkiguk.

Ez pentsa, beraz, honetan edo hartan irizkide ez garelako, menderenik ere hasarre edo mindurik nagoenik : lasai egon alde horretarik ! Kritika librorik gabeko jakinduri-aurrerapenik ez zegok, ez politika zuzenik egiterik ; eta Euskal Herrian oso oso beharrezkoa diagu, nik uste, elkarri entzutea elkar errespetatzea, eta irizpideen aniztasunean aurrera joatea. Eskerrik asko beraz, bihotzez.

Ni ez nauk liburu bakarrekõ gizona, ez filosofo bakar baten irakurlea ere. Beste askotan azaldu dudanez, teoria bakarretan ez diat sinesten ; eta kondairari buruzko azalpen bakunetan, are gutxiago. Gizonarengan anitz akuitu, anitz eragile eta anitz ezinezkoa iruditzen zaidak. Honetan zegok, itxura denez, gure arteko liferentziakakoa.

Nik ez diat esaten klase-burrukarik ez dagoenik : nola pentsa nezake horrelako zozokeriarik ? Nik ez diat esaten klase-burruka hori oso inportantea ez denik. Nik ez diat inoiz pentsatu kapitalismoaren barruan zuzentza eraiki daitekeenik. Alde horietatik egiten duan "rappel" hori, beraz, egokia iruditzen zaidak : hizkuntza-arazoa, giza-arazoa denez, ez duk bilakatzen klase-burrukatik at. Egia duk.

Baina klase-burruka, era berean, gizonengan eta gizonen bitartez obratzen duk ; eta gizonarengan bazegok beste eragile bortitzik ere : gizadiaren etni-sailketa, besteak beste.

Klaserik gabeko gizartea utopia hutsa dela salatzen duk, eta bi-dez salatu ; eta modako iritzi batzuen kontra doalako poztu egin nau hire luman eta ZABAL-en irakurtzeak. Klaserik gabeko gizarterik ez zegok-eta.

Baina etnariak gabeko gizartea, ere berean, utopia hutsa duk : egiazko gizartea etniaz osatua duk : orain, lehen eta nun-nahi. Egiazko gizar-tea etni-tiraduraz eta kultur-aurkatasunez ERE egina duk.

Bi kontradizio horiek giza-multzo batetan gertatzen direnean, besteari zein nagusitzen zaion sientziakiro erabakitzea ez duk erraza ; eta biok bakar baten "aurpegi" edo "aldi" baizik ez direla esatea ere ez.

Areago esango diat. Freud-en teoriari buruz eman ohi den argibi-dea oso ezaguna duk : gizona "iceberg" baten antzekoa dela ; eta ageri ez den parteak, ur azpiko parteak alegia, horma-mendi osoa hona eta hara eramaten duen bezala, hona eta hara eramaten gaitula ere, gu konturatu gabe, geure Inkontzi-enteak. Nork esan dezake Zientziaren izenean kontzientziatik at jokatzen duten bultzada izkutu horiek bigarren mailakoak direnik ?

Hots, Inkontzientea ez duk setsuaren mailan bakarrik ari : hori esatea Freud-i irain bat egitea huke. Eta sendimenduen eta grinaren mailari dago-kion Inkontzienteez gain, beste bat bazegok : Piaget-ena, adimenaren mailakoa, alegia. Nola ez kontutan hartuko, beraz, Zientziaren izenean, guztiz sinetsi-ezina eta aparta den Piaget eskergaren iritzia ? Nork daki harek baino zehaz-kiago jakintza adar guztietan zer gertatzen den ?

Klase-egoerari dagokion jarrera, jakina, inkontzientea duk. Hau segurua duk : konturatu gabe burges guztiek berdintsu pentsatzen ditek gauza askotzaz. Baina egun hauetantxe jakin diagu Konrad Lorentz-ek bildu duela 1973-ko Nobel-Saria. Zer erakatsi du Lorentzek, ordea, jakintsuek diotenez, behavior-isten kontra, gure grinari sakonenak eta bortitzenak gure abereta-sunari berari dagozkiola baizik ?

Horrela izanik, ordea, grina eta joera horien kaxa ez duk So-ziologiaren baranokoa, eta soluzioa ez duk klase-iraultza soil. Biologian badago kaxa, letra nagusiko Iraultza oso famatu hori, klase-burrukan funtsa-tua, ez duk posible ! eta zentauroak bezain mitologikoa duk.

Nik neuk bide beretik ari somatu uste diat gaurko pentsatzaile asko.

Hots : gizonari buruzko teoria bat maingu baldin badago, teoria horri datxekon politikabidea maingua duk nahi-ta-ez. Gizarte-teoriaren egia antropologiaren egia duk azken funtsean. Politikari gagozkiolarik, horrela, oso inportantea duk gisa-jakintzen gora-beherak bertatik segitzea.

Klase-burrukatik at bilatzen diren azalpidiak gezurraz oratuak ba-dira ere, dena klase-burrukara biltzea onartu ezinezko XINPLEKERIA dela zirudik. Kondaira-gune edo mende-mordoska batetan baliagarri eta argi-egile beharbada ; baina FUNTSEAN FALTSUA.

Ez diat ikusten, beraz, iritzi hauek defenditzeak nondik nora izan daitekeen eskuindarren jokoa egitea. Eskuindarren iskilu nagusiak oskurantismoa, fedekeria, manikeismoa eta sasi-profetak izan dituk betidanik : bai gaurko Txilen bai atzoko Grezian, bai heranegungo Espanan eta bai antzinako Inkisizio garaian.

Hire artikuluetan, beraz, zuzena ez delakoan, esaldi batek eman zidak benetako mina : "Paradoja ederra behin eta berriz euskaldun gazteri ezker-tiarra sinismena medio kritikatzten duen batentzat". (Zabal, I,64) Ezkertiar gazte-
teriaren alde negok osoki, hain zuzen ; eta ongi dakik ezkertar mogimenduen alde atera naizela behin eta berriz, eta aterako ere naizela, trukean askotan zantar-keriak eta irainak jasotzen baditut ere. Ene esperantza bakarra euskaldun ezker-tiarrak dituk. Edo zarete, hobeki.

Nik fededunak eta klerikalismoa kritikatzten dizkiat. Eta "fededun hitz hori, jakina, alderdi txarretik hartzen diat : kristauak ene errespetu guztiak merezi dizkitek. Baina gaur "fededunek" eta klerikalismoak, Apezgaitegiak eta Elizak hustu ala, "ezker" (??) kolorea hartu ditek Euskal Herrian, eta horretatik heldu duk makurra. Liburu sakratuak trukatu dizkiagu, bai ; baina liburu sakratuen sistemari eutsiz. Horra koska ! Ez nauk apaiz eta moja direnez edo izan direnez soilki mintzo ; azken mendeetan Euskal Herri osoa bihurtu baitzaigu manikeo eta fede bakarreko. Dogmakeria batetik bestera lerratzeko arriskua agiri agirian zegok, eta itsu ez den edonork ikus zezakek.

Euskaldun ezkeraren aldizkari izan nahi duen ZABAL-eko lankideok otoi, eutsi ! atsik ! biba zuek ! beti aitzina ! Euskaldun ezker egiazkotik at ez baitago Euskal Herriarentzako irtenbiderik.

TXILLARDEGI
